

**ASTIGARRAGAKO EH BILDUK AURKEZTUTAKO MOZIOA,
HAURREN ESKUBIDEEN ALDARRIKAPENAREN EGUNA DELA ETA**

Ondoko mozioa aurkezten dugu, haurren eskubideen aldarrikapenaren eguna dela eta

Haurren Eskubideen Aldarrikapena 1959ko azaroaren 20an Nazio Batuen Erakundearen (NBEren) Batzar Nagusiak egindako aldarrikapena da, haurren eskubide unibertsalak finkatuz.

Haurren eskubideak (edo haurtzaroaren eskubideak) jaiotzeagatik bakarrik haur eta nerabeek dituzten eskubideak; utziezinak, berezkoak eta nahitaezkoak direnak haurtzaro on bat izateko dira.

NBEren aldarria da haurrek haurtzaro zoriontsua izatea eta Aldarrikapenean aipatzen diren eskubide eta askatasunez gozatzea, beren eta gizartearen mesedetan. Halaber, **gurasoei, gizon-emakumeei nahiz erakunde, tokiko agintaritza eta gobernu nazionaleri eskatzen die aipatutako eskubideak aitortu ditazatela eta haien alde lan egin dezatela**, legegintzako neurriak eta beste neurri batzuk pixkanaka ezarriz, honako printzipio hauen arabera:

1. Berdintasunerako eskubidea, arraza, erlijioa edo nazionalitatea kontuan hartu gabe.
2. Babes berezia jasotzeko eskubidea, fisikoki, mentalki eta sozialki osasuntsu eta libre haz daitezen.
3. Izen bat eta nazionalitate bat izateko eskubidea.
4. Elikadura, etxebizitza eta osasun-arreta egokia izateko eskubidea.
5. Urritu fisiko edo psikikoek hezkuntza eta arreta bereziak jasotzeko eskubidea.
6. Familiak eta gizarteak maitatua eta ulertua izateko eskubidea.
7. Doako hezkuntza baterako eskubidea. Ongi pasatzeko eta jolasteko eskubidea.
8. Arrisku-egoeratan arreta eta laguntza jasotzen lehenak izateko eskubidea.
9. Abandonatua eta lanean esplotatua ez izateko eskubidea.
10. Munduko pertsona guztien arteko elkartasuna, adiskidetasuna eta justizia sustatzen duen hezkuntza jasotzeko eskubidea.

Aldarrikapena onartu zenetik igarotako urte hauetan guztietan lorpenak handiak izan arren, adingabeen eskubideak betetzeari dagokionez, oraindik erronka asko eta handiak ditugu guztiok, badugu zereginik.

Euskal Herriko eta, jakina, Astigarragako, haur eta nerabe guztiek dute eskubidea bere herriko haur txoko eta gazteleketan haien autonomia garatzeko eta ondo pasatzeko. Zerbitzu hauek haien espazioak dira eta bertan lagun berriak egin eta hainbat balio lantzen dituzte, jolastu eta dibertitzeaz gain.

Azaroaren 20aren haritik, Astigarragako Udalak konpromisoa hartzen du, batetik, aldarrikapena bere egin eta ezagutzera emateko, eta, bestetik, bere eskumenen baitan lan gogotik egiteko, Astigarragako haur eta nerabeek beren autonomia garatzeko behar diren babes eta baliabideak izan ditzaten.

Astigarraga, 2019ko azaroaren 15a

Astigarragako EH Bilduko udaltaldea

Xabier Urdangarin